

Mugikortasun segururako hezkuntza: tutoretzarako aukera



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERREZANINGO SALA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Mugikortasun segururako hezkuntza: tutoretzarako aukera

| | |
|-----------------------|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2012ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 2.000 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Herrizaingo Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Egileak: | M. ³ Jesús Iturralde Arriaga eta Francesc Esteban i Amat |
| Koordinazioa: | M. ³ Jesús Iturralde Arriaga eta Martín Gil Osoro |
| Diseinua eta irudiak: | Tiktak Multimedia S.L. |
| Itzulpena: | Aixe S.L. |
| Inprimatzea: | Ona Industria Gráfica |
| ISBN: | 978-84-457-3247-2 |
| Lege-gordailua: | VI 412 - 2012 |

Lan hau Cyclus Printen argitaratu da, papera % 100 birziklatua da, eta besteak beste ziurtagiri hauek ditu: Aingeru Urdina, Iparraldeko Beltxarga, Etiketa Ekologiko Europarra, ISO 14001 eta EMAS. Informazio gehiago hemen: <http://www.cyclus.dk>

Mugikortasun segururako hezkuntza: tutoretzarako aukera

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Tráfico

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Aurkibidea

| | | |
|----------|---|----|
| | Aurkezpena | 4 |
| 1 | Trafiko istripuak: benetako arazoa, benetakoegia | 5 |
| 2 | Mugikortasun segururako hezkuntza: prebentziorako tresna | 7 |
| | 2.1 Pertsona: prebentzioaren alderdi gako | 7 |
| | 2.2 Noiz eta nola ikasi prebenitzen | 9 |
| | 2.3 Gure prebentzio eredua | 11 |
| 3 | Mugikortasun segurua Oinarrizko Hezkuntzako curriculumean | 17 |
| | 3.1 Lehen Hezkuntza | 19 |
| | 3.2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 25 |
| 4 | Mugikortasun seguruari buruzko tutore lana | 31 |
| | 4.1 Tutoretza eginkizuna | 31 |
| | 4.2 Tutoretza eta mugikortasun segurua | 31 |
| | 4.3 Lehen Hezkuntza | 32 |
| | 4.4 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 37 |
| 5 | Metodologia gomendioak | 41 |
| 6 | Ondorioak | 43 |

Aurkezpena

Euskadin, urtean berrogeita hamar hildako baino gehiago eragiten dituzte trafikoko istripuek, eta bostehun lagun inguru larri zauritzen dira. Biktima horietako asko gazteak izaten dira, eta, batzuetan, haurrak ere bai. *Epidemia isil* deitu izan zaion horrek jende askorengan eragiten du zuzenean edo zeharka, eta ezin dugu horren aurrean hotz izan.

Arazo horri irtenbidea bilatzeko edo prebenitzeko ardura hezkuntza sistemak hartu behar duela gehiegi esatea eta zentzugabea litzateke; ziur nago, baina, gizarteko eragile guztiok –ikastetxeak, besteak beste– lagun dezakegula gure mugikortasuna egunetik egunera sostengagarriago, osasungarriago eta, horrekin batera, seguruago izan dadin. Horretarako, tresnarik onenetako bat dugu: hezkuntza.

Mugikortasun segururako hezkuntzak –Trafikoko Zuzendaritzaren ikuspegitik– funtsezko jomugatzat du guztiok arriskuak ezagut eta hauteman ditzagun eta arriskuak saihesteko gogoia izan dezagun lortzea. Azken finean, pertsona eta nork bere burua babestea ditu ardatz hezkuntza horrek.

Irakasle bakoitzaren esku –eta, batik bat, tutoretza lana egiten dutenen esku– dago gelan arriskuak nola prebenitu irakastearen alde egitea, baina horrek curriculum edukiak gehitzea eragin gabe. Horretarako gakoak eskaintza du xede eskuetan duzun dokumentu honek.

Ziur nago mugikortasun segururako hezkuntzak, EAEko bideetan heriotza goiztiarrak prebenitzen laguntzeaz gain, gazteei arriskuaren aurrean moldatzen jakin dezaten eta beren eta inguruan dituztenen segurtasuna arrisku ororen aurretik jar dezaten beharrezko dituzten oreka eta ongizatea aurkitzen laguntzen diela.

Horregatik guztiagatik, mugikortasun seguruaren deman parte har dezazun gonbit egiten dizut. Ezbairik gabe, guztiok partekatzen dugun espazio publikoa hobetzen lagunduko du. Eskerrik asko, aldeztu aurretik.




Amparo López Antelo
Trafikoko zuzendaria

1 Trafiko istripuak: benetako arazoa, benetakoegia

Garapenerako gure gizarte eredia motordun ibilgailuen erabilerari lotuta izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailuen kopurua bai urtean egindako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak ere eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, trafiko istripuak. Hain zuzen ere, azken horiek tragedia amaigabea izaten dira, eta herrialde industrializatuetan 14 eta 29 urte bitarteko biztanle gehien istripuen ondorioz hiltzen da.

Munduan, urtero milioi bat lagun baino gehiago hiltzen da trafiko istripuen ondorioz, eta 50 milioi baino gehiago zauritzen dira. Trafiko istripuek bilioi erdi baino gehiagoko kostu ekonomikoa eragiten dute urtero mundu osoan, eta, kalkuluen arabera, herrialde garatuetan barne produktu gordinaren (BPG) %2 eta 2,5 arteko kostu zuzena eta zeharkakoa du.

Egoera hain da larria, ezen NBEren Batzar Nagusiak «Bide Segurtasunerako Ekintza Hamarkada» izendatu baitu 2011-2020 aldia.¹




¹ 2009ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2011-2020 Bide Segurtasunerako Ekintza Hamarkada izendatu zuen 64/540 Ebazpenean, honako goiburua honen pean: *Jarduteko unea da. Elkarrekin, milioika bizitza salba ditzakegu.*

Gizartea gero eta jakitunago da trafiko istripuek eragiten dituzten biktimen kopurua murriztu beharra dagoela. Trafiko istripuetan hiltzen eta zauritzen direnen tasek behera egin dute, pixkanaka, gure inguruan, baina, hala ere, hilen eta zaurituen kopuruak epidemia batek eragindakoak adina dira oraindik. Eta, gainera, ezin dugu ahaztu trafiko istripuen biktima zuzenez gain, istripuen ondorioak zeharka jasaten dituzten pertsonak ere badirela: istripu larri bakoitzaren atzean, heriotza bakoitzaren atzean, familia tragedia bat dago.


2 Mugikortasun segururako hezkuntza: prebentziorako tresna

2.1. Pertsona: prebentzioaren alderdi gako

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu trafiko istripuak? Ez dago erantzun errazik, jakina, ez eta istripuak berak bakarrik saihestuko dituen ezer ere. Istripuen prebentzioan, elkarri loturik agertu ohi diren hiru elementu edo alderdi daude: bidea, ibilgailua eta pertsona. Bide segurtasuneko hirukia deritzo horri.



Oro har, guztiok onartzen dugu hiru elementu horietatik *giza faktorea* dela trafiko istripu gehienen atzean dagoena. Hortaz, zergatik «erosten» ditugu txartelak, «sariak» zoritxarreko ondorioak izan ditzakeela jakinda ere? Zer egin, «txartelak erosteari» uzteko? Txartelak ez erostea prebenitzea da.




Giza faktorea deritzon horren ikuspegitik, arriskutsu direla hautematen ditugun egoerak saihestera eramango gaituen jokabide edo portaeratzat jotzen da prebentzioa; edo baldin arriskua errealitate bihurtzen bada, haren ondorioak murriztuko direla ziurtatuko duten jokaerak hartzea izango da.

2.2 Noiz eta nola ikasi prebenitzen

Prebenitzea ekintza naturala da, gizakiona, eta ekintza baten ondorio kaltegarriak irudikatzea (aurrea hartzea) eta ondorio horiek gauza ez daitezen zerbait egitea dakartza berekin. Prebenitzen gazte-gaztetan ikasten dugu, bai, baina, hala ere, ez dugu sistematikoki egiten. Ez da erraza prebenitzen ikastea, egiten dugunaren ondorioez jabetzea. Bide segurtasuneko prebentzioa da, beharbada, irakats daitekeen lehenengo «prebentzioetako» bat, bide segurtasunaren ondorio fisikoak oso agerikoak eta frogagarriak baitira.

Garrantzitsua da adin bakoitzari datxezkion berezko arriskuak prebenitzen ikastea, eta txiki-txikitatik hastea prebenitzen. Helduarora arte itxaroten badugu, orduan berandu izango da, ziur asko.

Nola irakats dezakegu «prebenitzen» ikasgelan?



Prebentzioak bi lan arlo ditu: prestakuntzaren arloan eta ekintzarenean edo errealitatearenean.

- Prebenitzeko, arriskua ezagutu behar dugu. **Arriskua ezagutzea** informazio hutsetik haratago joatea da.
- Hala ere, arriskua ezagutzea ez da nahikoa arrisku hori saihesteko; arriskua hauteman ere hauteman behar da. **Arriskua hauteman** behar da arriskua gertu dugunean, errealitateko espazioetan, pertsonon esperientzia metatuan eta esperimentazioan, ikasgela barruan zein kanpoan.
- Baina hautematea ere ez da nahikoa. Horrez gain, pertsonak arriskua saihesteko nahia izan behar du. Batzuetan, badakigu arriskua egon badagoela, hautematen dugu, baina portaera arriskutsua izaten jarraitzen dugu. Halakoetan, jarrera da gakoa. Prebenitzeko, ez da nahikoa arriskua ezagutzea eta hautematea, soilik; batez ere, **arriskua saihesteko nahia** izan behar da.
- Azkenik, prebentzioa errealitatean bertan egin behar da. Ikasgelan, errealitaterako prestatu; hori baino ezin dugu egin. Horregatik, oso garrantzitsua da ikasgelan, prestakuntzaren bitartez, ikasleei beharrezko bultzada ematea, jokabide seguru hori ekintzara –errealitatera– eraman dezaten.



2.3 Gure prebentzio eredua

Tradizioan, bide hezkuntza Lehen Hezkuntzara mugatuta izan da. Hainbat urtetan zehar pentsatu izan dugu baldin haurrei zirkulazio seinaleak eta bidean ibiltzeko zenbait arau irakatsiz gero, helduaroan aplikatu eta errespetatuko lituzketela.

Denborarekin, baina, hori ez dela nahikoa egiaztatu dugu. Zerbait *jakiteak* ez du esan nahi dakigun hori egingo dugunik. Eskolan, prebentzio lana egitea ez da «autoeskola» bat eskala txikiagoan simulatzea; prebentzioak haratago joan behar du. Lortu behar dena zera da: pertsona jakitun izatea mugitzeko dituen beharrek bideko zer arrisku dakarten.

Gure prebentzio eredua *Mugikortasun segururako hezkuntza. Konpetentzien gida* izeneko dokumentuan jaso dugu.²



Gidaliburu horretan hezkuntza ibilbide osoa zehaztu da, eta ibilbide horren helburua honako galdera hauei erantzutea da: zer, nola eta noiz hezi mugikortasun seguruan. Ez da soilik ikastetxeetan erabiltzeko gidaliburua. Pertsonak, bizitza osoan, trafikoko istripuak saihesteko edo istripuen ondorioak

² Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen/Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

txikiagotzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak definitu dira. Mugikortasun segururako hezkuntza proiektuak sortzeko asmoa duten EAEko erakunde publikoek edo pribatuek eta gizarteko eta hezkuntzako eragileek programazio didaktikoak errazago egin ditzaten diseinatu da baliabide hori.

Gidaliburuaren ardatz pertsona eta prebentzioa dira, eta beste arlo batzuetan ere erabil daiteke, baldin arriskua badago eta pertsonak erabakiak hartu behar baditu (etxeko istripuak, drogekin eta alkoholarekin gehiegikeriak, eta abar).

Mugikortasun segururako oinarrizko zazpi gaitasun zehaztu dira gidaliburuan:

- Arreta.
- Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.
- Ingurunearen azterketa.
- Taldeko presioarekiko erresistentzia.
- Egokitzapena eta malgutasuna.
- Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.
- Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea.



Arreta beste gaitasun guztietan izan beharreko gaitasuna da, eta, hein batean, gaian sartzeko beharrezko atea, beste faktore batzuekin batera. Arretarik gabe, beste gaitasunetako batek ere ez du balio.

Dena den, gaitasun bakoitza ulertzen laguntzeko, gaitasun bakoitza definitu dugu, eta bakoitzaren laburpen txikia gehitu dugu.

Definizioan, ekintza aditz batek pertsonak zer egiten duen azaltzen du, eta zenbait osagarrik ekintza zehazten dute. Laburpenaren bidez, gaitasunaren elementu nagusia galdera itxuran laburbildu da.

Arreta


Definizioa: Egoera arriskutsuei aurrea hartzeko behar bezalako kontzentrazio maila egokia erakustea, ernetasun maila egoeraren arabera egokituta.

Laburpena: *Mantentzen al dut nahikoa arreta maila eta arretarik gabe al dut arrisku handiagoa izateko aukerak hautematen ditudanean?*

Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

Definizioa: Mugikortasunari lotutako egoeretan jasan daitekeen edo besteri egin dakiekeen kaltea edo kaltearen probabilitatea kontuan izatea.

Laburpena: *Balioztatzen al ditut bideko nire egintzen ondorioak arrisku terminoetan?*



Ingurunearen azterketa

Definizioa: Inguruneari buruzko beharrezko informazioa modu interaktiboan aztertzea eta egoeretako bat balioestea aukerarik segurue-
na hartuta.

Laburpena: *Nire erantzunak egokiak al dira inguratzen nauen ingurunerako?*

Taldeko presioarekiko erresistentzia

Definizioa: Norbere irizpidearen arabera jardutea eta besteen eragina ba-
lioestea, norbere eta gainerakoen segurtasuna hobetsita.

Laburpena: *Benetan nik erabakitzen al dut?*

Egokitzapena eta malgutasuna

Definizioa: Bideko egoera ezberdinei erantzun desberdinak ematea, norbere
edo testuinguruaren beharren arabera, horrek dakarren aldaketa
onartuta.

Laburpena: *Erraz egokitzen al naiz aldaketetara, barruko aldaketetara nahiz
bide testuinguruaren aldaketetara?*

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

Definizioa: Norbere barne egoera aztertzea, horrek dakartzan arriskuak ba-
lioztatzea, eta arrisku horiek minimizatze aldera jardutea.

Laburpena: *Jabetzen al naiz nola nagoen eta zer sentitzen dudan une honetan?*

Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea

Definizioa: Presiopeko egoera iraunkorrak edo estimulu adierazgarri kopuru handiegia kontrolatzeko eta gainditzeko baliabideak izatea.

Laburpena: Konturatzen al naiz egoerak gainditu egingo nauela? Presio egoera arriskua areagotu gabe mantentzeko gai al naiz?

Gure prebentzio eredia honako beste bi argitalpen hauetan ere jaso da:

- *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA.*³
- *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. BIGARREN HEZKUNTZA.*⁴



³ Herrizaingo Saila (2011). *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

⁴ Herrizaingo Saila (2011). *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. BIGARREN HEZKUNTZA*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Bide hezkuntza hezkuntzako curriculumetan egon badagoen arren, maiz, gai hori bigarren mailan geratzen da, beste eduki batzuek egiten duten presioaren ondorioz. Aipatutako bi argitalpenek zailtasun hori arintzea eta irakasleei eskola curriculumean segurtasuna agerian izaten laguntzea dute xede.

Gure prebentzio ereduak trafiko istripuak prebenitzen laguntzea du xede, baina ez hori bakarrik; kausa berak dituzten beste arazo batzuei aurre egiten laguntzeko ere balio izateko bezain orokorra eta transferigarria izan nahi du. Hainbat urtetan zehar, egiaztatu dugu ikuspegi horrek funtzionatzen duela. Izan ere, eredu pedagogikoa du barnean, pertsona ardatz duena, eta pertsonari bere emozioak aztertzeke aukera ematen dio, taldearekin era librean elkarrekiteko bidea errazten dio eta pertsonari bere autonomia eta erantzukizuna garatzen laguntzen dio.

3 Mugikortasun segurua Oinarrizko Hezkuntzako curriculumean

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako berezko curriculumaren xedeetako bat da honako hau:

*ikasleak prestatzea, helduarora sar daitezen eta gai izan daitezten bizimodu osoa bizitzeko banako gisa, gizarteko herritar aktibo gisa eta natura zaintzearekin eta garapen sostengagarriarekin engaiatutako pertsona gisa.*⁵

Hori lortzeko, ikasleak goi mailako ikasketak egiteko prestatzera bideratutako curriculum behar da, baina ez hori bakarrik: pertsonaren garapenaren alderdi guztiak hobeto integratuko dituen curriculum behar da, alegia, curriculum hezigarriagoa, eta egiten jakitera bideratuagoa.

Curriculum horrek **hezkuntzako sei gaitasun orokor** ditu erreferentzia ardatz, eta hezkuntzako urrats horretako prozesu osoa era integralean bideratzen dute. Gaitasun horietatik honako hauek nabarmentzen ditugu, mugikortasun seguruarekin oso lotuta baitaude:

- Era arduratsuan eta autonomoan bizitzen ikastea, norbere burua eza-gutzen, norbere buru osasuna eta osasun fisikoa zaintzen eta ohitura osasungarriak hartzen ikasiz; eta horretan guztian seguru sentitzea.
- Ikasten eta modu kritikoan pentsatzen ikastea. Erabakiak hartzen eta arazoak ebazten ikastea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea.
- Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanik, emozio negatiboak kontrolatuz eta norbere burua era positiboan eta errealistan balioetsiz; autonomo eta norberaren erabakien erantzule izanik, eta printzipio etikoen arabera jokatzuz.

⁵ 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa (97/2010 Dekretuak aldatua). 5. artikulua.

- Egiten eta ekiten ikastea; eta, prozesu horretan: erabakiak hartzeko ekimena izatea eta erantzukizuna norberaren gain hartzea, zailtasunak gainditzea eta ahalegina balioestea, eta ekimen ekintzaileak egitea bizitzako hainbat arlotan.

Gaitasunen ikuspegi horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumean, gainera, **oinarrizko** zortzi **gaitasun** ezarri dira, ikasleek oinarrizko hezkuntza bukatzerako lortu beharrekoak:

1. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.
2. Ikasten ikasteko gaitasuna.
3. Matematika gaitasuna.
4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
5. Informazioaren trataerarako gaitasuna eta gaitasun digitala.
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
7. Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Oinarrizko Hezkuntzarako ezarritako oinarrizko zortzi gaitasun horietatik, mugikortasun segururako hezkuntza, neurri handi batean, *gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren* barruan sartzen da, eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum edukien barruan dago, bai eta tutoretzaren barruan ere.

Mugikortasun segururako hezkuntza

Curriculumeko edukiak

Tutoretza ekintza

Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza

Etika eta Hiritar Hezkuntza

Tutoretza ekintzak, irakasleen eskola orduen barruan

Lehen Hezkuntza

DBHko 1., 2. eta 3. mailak

DBHko 4. maila

Ikasketei eta lanbideari loturiko orientabidea

Familiaren eta ikastetxearen arteko harremana

Jarraipen akademikoa



3.1 Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako curriculumean, honela agertzen da mugikortasun segurua:

- Zeharkako eduki gisa, curriculumeko arloen barruan.
- *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza* arloko berariazko eduki gisa.

Mugikortasun segurua zeharkako edukia da, curriculumeko arloen barruan

Mugikortasun segururako hezkuntzak askotariko arloetako curriculum edukietara egiten duen ekarpena aintzat hartzeko modukoa da, eta sakon aztertzea berezi du. Hona hemen horren zenbait adibide:

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

Arlo horretan, honako eduki hauek nabarmen daitezke:

- Norbere emozioak identifikatzea (amorrua, beldurra, eta abar).
- Arauak balioestea eta betetzea.
- Kalean oinez ibiltzeko ezagutu behar diren zirkulazio seinaleak ezagutzea (semaforoen kolorea, oinezkoen pasabideak, eta abar), eta garraiobideak erabiltzeko oinarrizko arauak zein diren jakitea.
- Planoak erabiltzea, kaleen kokalekua zehazteko.
- Soinuak hautematea eta identifikatzea.
- Norbere burua ezagutzea eta autoestimua; edo autonomia izatea, ekintzak eta atazak planifikatzeko eta gauatzeko orduan.

Arte Hezkuntza

Pertzepzioen eta mugimenduaren garapena da arlo honen ardatzetako bat, eta hainbat gauza partekatzen ditu mugikortasun seguruarekin, hala nola: pentsamendu kualitatiboa adierazteko norberaren modua, edo adimen emozionala adieraztekoa, edo komunikatzeko eta gizartearen harremanak izateko gaitasuna erakustekoa.

Gorputz Hezkuntza

Bizimodu osasungarria eskaintzea da arlo horren helburuetako bat. Mugikortasun seguruarekin partekatzen ditu honako alderdi hauek, besteak beste:


- Norbere burua ezagutzea eta kontrolatzea.
- Pertzepzio eta mugimendu trebetasunak.
- Mugimendua egoera berrietara egokitzea; bereziki garrantzitsua da bideko portaeran, oinezko garenean zein bizikletaz gabiltzanean.

Oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen duen beste elementu komun batek, berriz, probatzen gaituzten jardurekin du zerikusia. Curriculumean honako hau dago jasota:

Espazioek zalantzak sortzen dituzte, eta, beraz, uneoro erabakiak hartu behar izaten dira. Arrisku-egoerek, berriz, «argi gorria» pizten dute garuneko sistema linbikoan. Bestalde, bide pedagogikoa garatuz, arriskuak gure emozioak interpretatzen eta kontrolatzen lagundu diezaguke.⁶

Hizkuntzak

Hizkuntza trebetasunek aukera ematen dute barneko mundua ozenki adierazteko, ideiak alderatzeko, argitzen saiatzeko, azalpenak emateko eta hizketakidea konbentzitzeko.




⁶ 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko (97/2010 Dekretuak aldatua).

Matematika

Curriculumak ikasleen hainbat esperientzia arlo erabiltzea proposatzen du, matematikako jarduerak sortzeko. Esate baterako, estatistika datuak eta is-tripuei buruzkoak aztertzeak trafikoaren errealitatera hurbiltzeko bide eman diezaguke:

Informazioa Tratatzeari eta Zoriari buruzko eduki multzoak are garrantzitsuagoak dira ezagueraren beste arlo batzuekin zerikusia duten jarduerekin lotzen badira. Multzo horretako lehendabiziko edukiak informazioa biltzea eta matematikaren ikuspegitik tratatzeari buruzkoak dira, eta aipamen berezia egiten zaio adierazpen grafikoari; gainera, ausazko fenomenoak ulertzen hasteko edukiak biltzen dira. Eduki horiek, halaber, Lehen Hezkuntzako beste arlo batzuetan aplikatu eta lantzen dira; hau da, estatistika-datuak (biztanleria, inkestak, herrialdeen azalera...) eguneroko bizitzan sortzen den informazioa lantzeko erabiltzen dituzten arloetan.⁷



⁷ 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa (97/2010 Dekretuak aldatua).

Mugikortasun segurua Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza arloko berariazko edukia da

Arlo horretako edukiak –norbanakoari eta gizarteari buruzkoak– hiru eduki multzotan banatzen dira:

1. eduki multzoa: *Gizabanakoak, eta pertsona arteko nahiz gizarteko harremanak.*
2. eduki multzoa: *Komunitatean bizitzea.*
3. eduki multzoa: *Gizartean bizitzea.*

Mugikortasun segurua –guk ulertzen dugun moduan– hiru eduki multzo horietan islatzen da. 1. eduki multzoak honako hau hartzen du barnean:

1. eduki multzoak, Gizabanakoak eta pertsona arteko harremanak eta harreman sozialak izenekoak, honako alderdi pertsonal hauek lantzen ditu: autonomia, pribatutasuna eta nortasuna, eta norberaren eta gainerako pertsonen emozioak onartzea. Proposatzen denaren arabera, harreman-ereduak honako oinarri hauek izango ditu: pertsona guztien duintasuna onartzea, iritzi eta sinesmen desberdinak izan arren besteak errespetatzea, eta aniztasuna eta pertsonen eskubideak onartzea.⁸

Eduki multzo horretako edukiek lotura zuzena dute mugikortasun seguruko bi gaitasunei dagozkien edukiekin:

- Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.
- Taldeko presioarekiko erresistentzia.

Bestalde, mugikortasun seguruko beste bi gaitasun argi eta garbi ageri dira bigarren eduki multzoan:

- Egokitzapena eta malgutasuna.
- Taldeko presioarekiko erresistentzia.

⁸ 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko (97/2010 Dekretuak aldatua).

2. eduki multzoak, «Komunitatean bizitzea» izenekoak, honako hauek lantzen ditu: ingurunearekiko harremanetan elkarrekin bizitzea; gizarte demokratikoaren oinarri diren gizabidezko balioak (errespetua, tolerantzia, solidaritatea, justizia, berdintasuna, elkarri laguntzea, lankidetzeta eta bakearen kultura); gure taldeetan bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko erak (familia, ikastetxea, lagunak, herriak); eta pertsona bakoitzak bere taldean dagozkion eskubide eta betebeharrak betetzea, aniztasuna identifikatuz, bereizkeria baztertuz, parte-hartzea eta horretarako bideak aintzat hartuz eta talde eta batzordeetan parte hartuz. Halaber, hurbileko ingurunean dagoen kultura- eta erlijio-aniztasuna onartuta, eta, eskubide eta betebeharrak dagokienez, emakumezko eta gizonezko guztien arteko berdintasuna onartuta, ohitura eta bizimodu desberdinak kritikoki errespetatu daitezkeen lan egin daitezke, eta marjinazio-, bereizkeria- eta gizarte-bidegabekeriako egoerak antzemateko eta baztertzeko elementuak lor daitezke.⁹

Hirugarren eduki multzoan mugikortasun seguruari berariaz loturiko edukiak sartzen dira. Hona hemen hirugarren multzoan berariaz ageri diren gaitasunak:


- Ingurunearen azterketa.
- Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Bukatzeko, 3. eduki multzoak, «Gizartean bizitzea» izenekoak, herritarren gizabideari buruzko planteamendu bat proposatzen du, eta eremu publikoan elkarrekin bizitzea ahalbidetzen duen guztia barnean hartzen du. Gizabidea hau da: bizitza kolektiboan parte hartu nahi duen edozein pertsonak gainerakoekin batera parteka ditzakeen gutxienezkoen etika bat. Herritartasun-izaerak bezala, gizabideak bere barnean hartzen ditu bizikidetzeta-kultura publiko bat osatzen duten modu eta balio guztiak; horiek, aldi berean, zenbait balio moralen adierazpen dira eta ezinezkoa da horiek gabe elkarrekin bizitzea.¹⁰

⁹⁻¹⁰ 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko (97/2010 Dekretuak aldatua).

Zehazki, gizabidezko ohiturei buruzko atalean, erreferentzia zuzenak egin zaizkio mugikortasun segururako hezkuntzari:

*Osasunarekiko, kontsumo arduratsuarekiko eta ingurumenarekiko erantzukizuna. Animaliak errespetatzea. Bide segurtasuneko arauak errespetatzea.*¹¹



3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Mugikortasun segurua zeharkako eduki gisa ageri da hainbat arlotan, bereziki Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza arloari dagozkionetan eta Etikako eta Herritartasuneko Hezkuntzari dagozkionetan.

Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza

Arlo horretan, mugikortasun seguruko hainbat gairi dagozkien edukiei hertsiki loturik dauden eduki hauek nabarmendu daitezke:

Gaitasuna: **taldeko presioarekiko erresistentzia**

- Oinarri zentzuzkoa duten diskurtsoak egitea, besteen ikuspuntua osorik edo haren zati bat integratzeko gai direnak (informatu, interpretatu, argudiatu).

¹¹ 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko (97/2010 Dekretuak aldatua).

- Gertaera edo gaurkotasuneko gai bati buruz jasotako informazioak elkarrekin alderatuz eta modu kritikoan aztertzea, eta horren gainean eztabaida konstruktiboa egitea.
- Elkarrizketak eta bitartekotza lantzea, egoera gatazkatsuak indarkeriarik gabe konpontzeko estrategiatzat hartuta.
- Elkarrizketarako trebetasunak erabiltzea, benetako komunikazioa sortzen lagun dezaten.

Gaitasuna: **neure burua eta nire emozioak kudeatzea**

- Nortasuna, autonomia eta norberaren erantzukizuna.
- Sentimenduak eta emozioak.
- Pertsonen eta belaunaldien arteko harremanak. Eguneroko bizikidetzan asertziozko trebetasunak eta jarrerak garatzea. Intimitatea, pribatutasun eremua, eta datu pertsonalak babestea.
- Gatazka eta bitartekotza. Gatazkei erantzuteko bidetzat indarkeria baztertzea.
- Ondasun komunak, natura ondarea eta zerbitzu publikoak identifikatzea, balioestea eta zaintzea. Zentzuz eta era arduratsuan kontsumitzea. Publizitate mezuen eragina gizarte eredu eta ohituretan.
- Gizakiok bizitzarekin eta ekosistemarekin ditugun harremanak. Hondamendi naturalen eta eragindako hondamendien prebentzioa eta kudeaketa.

Etikako eta Herritartasuneko Hezkuntza

Mugikortasun seguruko gaitasunei loturiko eduki batzuk honako hauek dira:

Gaitasuna: **taldeko presioarekiko erresistentzia**

- Gatazka egoerak konpontzeko elkarrizketa egitea eta negoziatzea. Bitartekotza.
- Gertaera edo gaurkotasuneko gai bati buruz jasotako informazioak elkarrekin alderatuz aztertzea eta modu kritikoan balioztatzea.


- Kidekoen ikuspegiak sartzea norberaren diskurtsoak egitean, haien ikuspegiak eztabaidatuz edo ikuspegi horiek guztiz edo zati bat inre-gratuz diskurtsoan.

Gaitasuna: **ingurunearen azterketa**

- Eztabaidak prestatzea eta egitea, gertuko inguruneke arazoei edo arazo globalei buruz, gaurkotasuneko gaiei eta etika eta gizabide dilemei buruz, dauden jarrerak eta aukerak kontuan hartuz.

Gaitasuna: **neure burua eta nire emozioak kudeatzea**

- Adimena, sentimenduak eta emozioak. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna. Pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzea.
- Pertsonen arteko harremanak. Pertsonen arteko gatazkak konpontzeko bidetzat indarkeria baztertzea.
- Elkarrekin bizitzeko gizarte trebetasunak eta jarrerak. Norberarenak ez bestelako bizimoduak eta pertsonen eskubideak errespetatzea.



Bestalde, mugikortasun seguruari loturiko zenbait alderdi curriculumeko beste arlo batzuetan ere lan daitezke. Jarraian, mugikortasun seguruko gaitasunei loturiko zenbait eduki nabarmenduko ditugu, gain-gainetik.

Gorputz Hezkuntza

Gaitasuna: *neure burua eta nire emozioak kudeatzea*

- Norberaren erritmoa eta emozioak, adierazpen eta komunikazio dinamikaren oinarri.
- Autokontrola, jolasetan eta kirolean izan ohi diren ukitze fisikoko egoeretan.
- Erlaxazio metodoak gauzatzea, lasaitzeko.

Gaitasuna: *egokitzapena eta malgutasuna*

- Norberaren gauzatze maila onartzea, eta hobetzeko prest izatea.
- Tolerantzia eta kiroltasuna izatea, emaitza onak neurrigabe lortu nahi izatearen gainetik.
- Hiri ingurunea eta natura ingurunea behar bezala erabiltzeko moduez jabetzea.
- Kirol ekintzei loturiko mugimendu trebetasunak lantzea.

Gaitasuna: *ingurunearen azterketa*

- Aurka egiteko egoerak, lankidetzarako egoerak eta aurka egiteko eta lankidetzan aritzeko egoerak. Zalantzekin edo gabe, nor bere espazioan edo taldean, zioaren batekin edo gabe.
- Ibilbideak egitea, miaketa seinaleak identifikatzea abiapuntu hartuta.
- Orientazio ibilbideak egitea, naturako oinarrizko orientazio elementuak eta mapak erabiliz.
- Jarduera bakoitzeko segurtasun arauak betetzea.
- Gatazkak ebazteko protokoloak aplikatzea: arazoaren jatorria aztertu, alderdiek esateko dutena entzun, askotariko irtenbideak bilatu, irtenbide horiek probatu, eta ondorio kaltegarri gutxien dituen aukeratu.
- Gertuko inguruneak eskaintzen dizkigun gozatzeko aukerak balioetsi.

Gaitasuna: **zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia**

- Ohitura jakin batzuek osasunean dituzten ondorioak; adibidez: egoneko bizitzak, nutrizio desorekek eta tabakoa eta alkohola hartzeak.
- Askotariko substantzia toxikoek organismoan dituzten eragin kaltegarriak.

Hizkuntzak

Hizkuntzen arloan (atzerriko hizkuntza, euskara eta gaztelania), bereziki garrantzitsuak dira, batetik, norbere emozioak kudeatzea (konfiantza eta ekimena, jendaurrean mintzatzeko), eta, bestetik, norbere ideiak aldezteko eta hizketakideak norberari kritikak egitea onartzeko argudiatze gaitasuna.

Natur Zientziak

(Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika)

Ezaguera zientifikoari esker, pertsonen gehiago kontrola dezakete beren osasuna eta hobetzeko gai ere badira. Bizimodu osasungarria izateko ohiturak sustatzen dira kontrol handiago horren bitartez, eta, gainera, murriztu egiten dira gaixotasunak sortzen dituzten eragileak.¹²

Halaber, berariazko zenbait edukiren barruan –laugarren mailako Fisika eta Kimikako edukietan, adibidez–, mugimendua, indarrak eta energia ikuspegi mekanikotik aztertu dira.

Azkenik, aipatzekoa da hezkuntzako urrats horretako hainbat irakasgaitan, mugikortasun segururako hezkuntza jarduerak ahozko adierazpena eta arrazoiketa lantzeko aukera direla. Gehienetan, arrisku alderdiei buruz gogoeta egiten denean, gauzak egitera edo erabaki jakin batzuk hartzera eramaten gaituzten arrazoiak zein diren ikusten dugu. Hortaz, ez da hain eraginkorra

¹² 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko (97/2010 Dekretuak aldatua).

alkohola hartu eta gero gidatzea debekatzea; eraginkorragoa da halakoak batzuetan gertatzen direla onartzea, eta jokabide hori izatera eraman gaituzten arrazoiak zein izan diren bilatzen saiatzea. Dilema moralak lantzeko ariketek, esate baterako, aukera ematen dute norbere iritzia adierazteko eta talde txikietan eztabaida egiteko; amaierarik gabeko istorio bat hartzen da abiapuntu, eta parte-hartzaile bakoitzak bi aukeren artean (bi aukera, ez gehiago) bat hautatu behar du. Jarduera hori lagungarri zaie gazteei, hitz egiteko, adierazteko eta konbentzitzeko.

4 Mugikortasun seguruari buruzko tutore lana

4.1 Tutoretza eginkizuna

Ikasgelako taldearen gaineko ardura bere gain hartzen duen pertsona da tutorea. Tutorearen eginkizunak dira, besteak beste: jarraipen akademikoa egitea, hezkuntzari eta lanbideari loturiko orientabidea ematea, familiaren eta ikastetxearen arteko harremana egitea, eta bere taldeko kide bakoitzari era integralean gara dadin laguntzea.

Tutore bakoitzak, bere eginkizunak gauzatzeko, elementu materialak, ordu-tegi bat eta berariazko programazioa ditu, tutoretza ekintzaren esparruan: **alegia, tutoretza.**

Tutoretza Ekintzako Planaren mende dago, eta plan hori Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren (IHP) barruan dago. Tutoretza Ekintzako Plana «ikasle guztientzako ekintzak –orientaziokoak eta bestelakoak– antolatzen dituen egitura da, eskolatuta dauden aldi osorako; ekintza horiek tutoretzan lantzen dira, eta ikasleek oinarritzko gaitasunak eskuratzea du helburu».

Tutoretza hezkuntza eta orientabide prozesu aktiboa da, eta jomuga du ikasle bakoitzak gaitasun pertsonalak eta lanbide gaitasunak eskuratzea, curriculumean ezarritako hezkuntzako gaitasunen esparruan.

4.2 Tutoretza eta mugikortasun segurua

Tutoretza hezkuntzako espazio bat da, eta, espazio horretan, tutoreak urrats bakoitzeko curriculumeko irakasgai multzoan zehaztuta ez dauden oinarritzko gaitasunak eskuratzea bideratutako prestakuntzako eta orientabideko alderdiak lantzen ditu. Hori dela eta, taldeko tutoretzan, arreta berezia jarri behar da prestakuntza integralean eragina duten alderdi pertsonaletan (norbere buruarekiko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, norberaren ekimena, eta abar), guztiek batera, aukera eman diezaieten ikasleei gauzen plangintza egiten, erabakiak hartzen eta erantzukizunak beren gain hartzen jakiteko.

Ikasleen parte-hartzea tutoretzako prestakuntzaren oinarritzko alderdia da, eta horretan lagun dezake mugikortasun segururako hezkuntzak.

Trafikoaren eta bidearen ingurunea esperientziala da funtsean; hortaz, ezinbestekoa izango da esperientzietatik eta pertsonen ikuspegietatik abiatzea, pertsonen jarreretan eragiten saiatu eta jarrera seguruagoak bultzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du estrategia metodologiko aktiboak hautatu behar direla, pertsonak beren jarrerez jabetzea eta esperimentatzea ahalbideztzeko.¹³

4.3 Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzan, mugikortasun segururako hezkuntzaren esparrua oso egokia da tutoretzan lantzeko. Maiz, tutoreak berak hartzen du gai horren gaineko ardura. Ikasleekiko eguneroko harremanari esker, ikuspegi hobezina du lan hori egiteko.

Urrats horretan, oso garrantzitsua da haurrek honako hauek egin ditzatela, pixkanaka:

- Beren interesak eta beste batzuenak bereizi.
- Guztion onerako elkarrekin bizitzeko aukera emango digun arau multzo bat ezarri behar dugula ulertu; eta hori aplikagarri da bai mugikortasun segururako, bai bizitzeko gainerako alderdietarako.
- Gogoeta egin eta nork bere buruari galdetu ea zergatik egiten dituen gauzak eta ea nola hartzen dituen erabakiak.

Hori guztia lortzeko, tutoreek ikasgelan lantzeko proposamen erabilgarriak dituzte, ziklo bakoitzerako. Proposamenak honako argitalpen honetan jaso dira: *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA.*¹⁴

¹³Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen/Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (15. or.).


¹⁴Herrizaingo Saila (2011). *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Lehen zikloa

Haurrak, adin horretan, autonomia hartzen hasten dira, eta helduek gainbegiratzen dituzten arren, kalean helduei eskutik heldu gabe ibiltzen hasten dira, apurka-apurka. Horretarako, kalea nola zeharkatu eta hori era seguruan nola egin ikasi behar dute; arriskuaren aurrean erne izan behar dute, baina ez ditu beldurrak blokeatu behar. Era berean, adin horretan, haurrek adi izan behar dute, eta jokabide seguruak izan behar dituzte, bai oinez dabiltzanean, bai autoan doazenean. Jakitun izan behar dira arriskutsu izan daitekeen inguru-
nean daudela, nahiz eta espaloian egon, eta jolas eta harreman jarduerak bigarren mailan utzi behar direla onartu behar dute.

Ikastetxeko txangoetan, txangoa egin aurretik landu behar da portatzeko era, eta haurrek aurrez jakin behar dute zer arrisku aurki ditzaketen eta zer egin behar duten baldin galtzen badira.


Horretarako, erabilgarri izan daitezke 1. programazioa (*Espazio segurua*) eta 2. programazioa (*Hiria esploratuko dut*).




Bigarren zikloa

Tutoreak landu behar duen beste arazo bat arauak bete beharri dagokiona da. Horrek ikastetxera sartzeko eta handik irteteko balioko du, bai eta, esate baterako, atsedendialdiaren ondoren ikasgelara itzultzeko eta ikasgelan behar bezala portatzeko ere. Bide hezkuntzako jarduerak erabilgarri eta interesgarri izan daitezke horretarako. Izan ere, hurrek oinezko gisa duten esperientziak, bai eta dagoeneko nagusi direla pentsatzeak ere, bideari loturiko funtsezko zenbait kontzeptu lantzen lagun dezake; esate baterako, bide publikoa ibilgailuekin partekatzeko beharra, eta oinez ibiltzen direnean beren burua babesteko estrategiak garatzeko beharra.

Horretarako, 3. programazioa (*Bakarrik, kalean barrena*) gomendagarri da.



4. programazioa (*Nire ardura ere bada*) segurtasun uhala edo kasuan kasuko segurtasun gailua behar bezala erabiltzeko beharri eta ibilgailutik irteteen arretaz ibiltzeko beharri buruzkoa da. Lehena baliagarri izan daiteke baldin eskola garraioa aipatu bezalako gailuz hornituta badago; bigarrena, bestalde, lagungarri izan daiteke ikasleak ikastetxera era baketsu eta seguruagoan sar eta handik irten daitezen.




Hirugarren zikloa

Hirugarren zikloan, gero eta neska-mutil gehiagok erabiltzen dute bizikleta lekualdaketerako ohiko bitartekotzat. 5. programazioa (*Bizikletaz, erabil ezazu burua*) bizikletaren erabilerari buruzkoa da, eta segurtasun pasiborako elementuak eta kaskoa erabiltzea proposatzen du. Izan ere, maiz onartzen



dute garrantzitsuak direla kolpeen ondorioak txikiagotzeko, baina gero, ez dituzte halakoak ohituraz maila berean erabiltzen. Halaber, kaskoaren erabilerak hari eroaletzat edo sinbolotzat balio du, neska-mutilek beste pertsona batzuei minik ez emateko duten erantzukizunari heltzeko.


Bestalde, bizikletaz ibiltzen garenean ere, bestelako ibilgailuen gidariei (ziklo-motor-, motozikleta-, auto-gidariei, besteak beste) eskatzen zaien errespetu eta zuhurtzia bera izan behar dugu. Aitzitik, bizikleta, baldin zirkulazio fluxuan erabiltzen bada, beste ibilgailuak baino arriskutsuagoa izan daiteke, gidaria ez baitago beste ibilgailuetakoak bezain babestuta. 7. programazioaren (*Gidatzera!*) xedea da zirkulazio arauz eta lekualdaketetan autoprebenzioko portaerak sartzearen onuraz gogoeta egiten laguntzea. Programazio hori gomendagarria da ikastetxeak antolatutako bizikleta txangoa egin aurreko jardueratzat.



Era berean, Hirugarren zikloan, tutorea, normalean, ohartzen da kidekoen taldea neska-mutilen portaeraren erreferentzia nagusi bihurtzen dela, eta haien balioak eta bideari loturiko hautaketak mugatzen ditu, neurri handian. Era berean, familiaren balioak gogoan dituzte oso, baina balio horien eta taldeak proposatzen dituenen artean gatazka sortzen da, maiz. Adin horretan, merezi du planteatzea pertsona batek bakarrik egongo balitz egingo lukee-

naren eta taldeak atsegin izateko edo soilik onartua izateko egin dezan eskatzen dion horren arteko barne gatazka jasateko beharra.

Norbere burua eta norbere emozioak kudeatzeko ahalmena hobetzeak eta taldeko presioarekiko erresistentzia gehitzeak aukera ematen dute adin horretako neska-mutilek erabaki kontzienteagoak eta beren segurtasunerako onak izango direnak har ditzaten. 6. programazioa (*Neuk aukeratzen dut*) lagungarri izan dakioke hezitzaileari, taldeko presioa lantzeko.




4.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Hezkuntzako urrats horretan, neska-mutilek, oraindik, jokabide automatikoezia izan ohi dute askotan. Ondoan dituzten helduek (aita, ama eta irakasleak, batez ere) diotenez, nerabeek, maiz, ez dute pentsatzen jardun aurretik.

Eta hori ez da bateragarri prebentzioarekin. Prebenitzeak esan nahi du ekintza baten ondorioei aurre hartzea eta, ondorio horien arabera, jokabide egokia aukeratzea. Prebentzioaren balioa sustatzeak berekin dakar bideko istripu eta gorabehera kopurua murrizteko lan egitea. Eta hori oso garrantzitsua da baldin ikastetxearen ezaugarriek, berez, ikasleak arriskuan jartzen badituzte.

Baina nola lortu neska-mutilek prebentzioaren alde egin dezaten? Hori lortzeko, tutoreek gelan lantzeko proposamen erabilgarriak izaten dituzte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako. Proposamenak honako argitalpen honetan jaso dira: *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. BIGARREN HEZKUNTZA.*¹⁵

Esate baterako, 2. programazioa (*Adi arriskuari!*) urrats horretako berriazko errealitateari buruzkoa da. Adin horretako pertsona gehienak ohituta daude oinezko gisa modu autonomoan ibiltzera, eta gazte askok bizikleta erabiltzen du ohiko garraibidetzat, leku batetik bestera joateko. Hezkuntzako urrats horretan, gainera, gazteek aukera izango dute ziklomotorrak gidatzeko, eta, geroxeago, gidabaimena lortzeko ere bai. Hori dela-eta, garrantzitsua da urrats honetan oinarritzeko bi gaitasun lantzea: arreta eta zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.




¹⁵Herrizaingo Saila (2011). *Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak. Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak. BIGARREN HEZKUNTZA.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Bestalde, nerabezaroan, kidekoek onartua izatea da jokabideko funtsezko elementuetako bat. Horregatik, batzuetan besteen eraginpean hartzen dituzte erabakiak, norberaren segurtasunaren kaltetan.

Gainera, bizitzako aro horretan gizabanakoa geroz eta aberatsagoa den emozio-mundu bat barneratuz doa; emozio-mundu hori izango du heldua-roko jokabidearen oinarria. Prozesu horretan, garrantzitsua izango da nerabeari laguntzea, bere oinarrizko emozioak ezagut ditzan eta emozio horiek mugikortasun seguruaren arloan bere erabakiekin erlazionatzen jakin dezan.


3. programazioak (*Neuk erabakitzen dut*) gazteei lagun diezaieke, besteak beste, honako hauei erantzunak bilatzen:

- Nor diren planteatzeari.
- Gauzak zergatik egiten dituzten.
- Nola izan koherente.
- Nola aurre egin taldeko presioari.




Ikasmaila horietako gazteen artean, halaber, alkohola da istripuen kausa nagusietako bat. Gero eta gehiago dira alkoholaren eraginpean gidatzea arriskutsutzat jotzen duten gazteak; baina, hala eta guztiz ere, alkohola da oraindik arrisku faktore nagusietako bat, trafikoko istripuetan.

4. programazioaren (*Alkohola eta gidatzea*) helburua da gazteei gogoeta egiten laguntzea, alkoholari buruz, haren albo ondorioei buruz, eta albo ondorio horiek gidatzean dituzten eraginei eta dakarten istripu arriskuaren gehikuntza nabarmenari buruz. Orobat, programazio honen asmoa da gazteak ohar daitezela beren egoera emozionalaz eta kanpo presiorik gabe erabaki beharraz.



5 Metodologia gomendioak

- Mugikortasun seguruari loturiko ekintzak hezkuntza curriculumean integratuta izan behar dira; ez dira bakartuta egin behar. Baldin Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta Tutoretza Ekintzako Planean sartuta badaude, koherentzia handiagoa izango dute, eta askoz eraginkorrago izango dira.
- Hezkuntza curriculuma koherenteago izan dadin, hobe da ikastetxean zeharkako ekintza bat egitea, ziklo bakarrean esku-hartzeak egitea baino.
- Mugikortasun seguruari loturiko jarduera batzuk egiteko ordubete baino gehiago behar da, eta ohiko espazioak ez diren beste leku batzuetan egin behar dira. Garrantzitsua da halakoak aurreikustea, jarduera horiek behar bezala egin daitezten. Espazioen erabilera ongi planifikatzeari, ikasgelaz aldatzeari edo gauzak fisikoki beste era batean jartzeari esker, parte-hartzaileek, beharbada, bestelako jarrera hartuko dute aurrez; alegia, erosoago hitz egingo dute, agian, eta, batez ere, ez dute tutoretza espazioa «nahasi»ko eta «jasotze» eta «komunikaziorik gabeko» jarduera dela pentsatuko.



- Gaitasun bakoitzari loturiko edukiak identifikatzeko, honako dokumentu honetara jotzea gomendatzen dugu: *Mugikortasun segururako hezkuntza. Konpetentzien gida.*



6 Ondorioak

Mugikortasun segururako hezkuntza aukera ona da tutoretzarako. Hezkuntza hori ematea ez da zerbaiten «gehigarri»; curriculum ofizialaren zati da, eta Oinarrizko Hezkuntzako askotariko irakasgaietako eduki asko eta askotan ageri da.

Mugikortasun segururako hezkuntza bat dator curriculumeko hezkuntza gaitasun orokorrekin, arrazoi hauek direla eta:

- «bizitzarako ikasbideak» deritzenen zati da (sexu hezkuntza, gizabide hezkuntza, bakerako hezkuntza, sostengagarritasunerako hezkuntza, drogazaletasuna prebenitzeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza), eta ikasbide horien helburu berak ditu (*ikasten eta modu kritikoan pentsatzen ikastea*). Abantaila bat du: guztietan «agerikoen» dela, hain zuzen ere, haren ondorioak fisikoak eta berehalakoak direlako (tabakoaren ondorioak denbora batera agertzen dira, adibidez). Hortaz, horiek guztiak lantzen hasteko atariko gai egokia da.
- ... mugikortasun espazio berean beste batzuekin batera egoteko etengabe eta nahitaez arauak ezarri eta bete behar ditugu, espazio berean hainbat lagun egonik halabeharrez sortzen diren gatazketan negoziatu behar izaten dugu, eta bidearen beste erabiltzaile batzuen arrazoiak, nahiak eta beharrak ulertzeko jarrera irekia izan behar dugu (*elkarrekin bizitzen ikastea*).
- ... mugikortasun segururako hezkuntzako jarduerak norbere burua babesten eta norbere zein ingurukoaren osasun psikologikoa eta fisikoa hobetzen laguntzen dute (*era arduratsuan bizitzen ikastea*).

Mugikortasun segururako hezkuntzak ez du eduki azalpen luze eta zehatzik ematea eskatzen. Mugikortasun segururako hezkuntza garatzeko, talde prozesuak dinamizatu behar dira, nagusiki. Eta, batez ere, ikasleei era integralean garatzen laguntzen die.

